



## 4. ALLEKO

ALTUERA MIN.:	605 m.
ALTUERA MAX.:	1019 m.
DESNIBELA:	▼ 477 m. ▲ 462 m.
DISTANTZIA:	10,97 km.
DENBORA:	3 ordu.
ZAILTASUNA:	ertaina



## 4. ALLEKO

➤➤ LIZARRUSTI PARKETXEA ~ ALLEKO GAINA ~ IRAIOKO LEPOA ~ LAREOKO URTEGIA ~ LIZARRUSTI PARKETXEA



- |                |              |         |            |        |              |          |         |
|----------------|--------------|---------|------------|--------|--------------|----------|---------|
| Aparkalekua    | Leizea /Koba | Iturria | Basoa      | Piknik | Trikuharria  | Hesia    | Amaiera |
| Hasiera puntua | Bidegurutzea | Zubia   | Jolaslekua | Tunela | Atsedenlekua | Harratea |         |

## TOPOGIDA

P. **Aparkalekua.** Lizarrusti Parketxearen alboan dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa, Lizarrustiko gainean.

1. **Hasiera puntua.** Aparkalekuan bertan emango diogu hasiera ibilbideari, errepidera irten eta Nafarroa aldera egiteko GR-12aren arrastoan bila.

2. **GR-12.** Venta Isabel tabernaren hondarren parean GR-12 edo ur-mugen bideko arrasto zuri-gorriak hartuko ditugu errepidea alde batera utziz eta ezkerreara eginez. Lizar ilara bat jarraituz egingo dugu aurrera, Lizarrustiko haitzen gainaldera abiatuz.

3. **Sarioondo.** Lizarrustiko Haitzen gainaldean gaude. GR arrastoak jarraituz egingo dugu aurrera pagadi ikusgarri honetan.

4. **Beorresiko harratea.** Hesiak ezkerreara egitean zabalgunek bat topatuko dugu. Beorresiko harratean gara, hau delarik berriro pagadira sarrera. Hemen GR arrastoak alde batera utzi eta erabat ezkerreara eta gora eginez Allekora igoko gara, hagin handi baten ondotik igaroz.

5. **Alleko (1019 m).** Ikusmira ederrak eskaintzen ditu gain nafar honek Gipuzkoa nahiz Nafarroa aldera: Beriain, Urbasa, Putterri, Askoa, Intusburu, Aizkorri, Agautz, Leizadi eta Aralar. Paisaiatz gozatu ondoren, berriro behera egin eta GR arrastoak jarraituko ditugu lehen utzitako lekuan.

6. **Akaitzerreka.** Ezkerreara eginez erreka ondotik aurrera egingo dugu.

7. **Ezkerreara.** Pago handia parean dugula ezkerreara hartuko dugu pista, lruerreketa eskuinean utziz. Aurrerago erreka zuloan leize bat ikus daiteke.

8. **GR-35.** Lareoko urtegiara heltzeaz gero ezkerreara egingo dugu GR-35aren arrastoak jarraituz, Lareoko urtegia gure eskuin aldean jarritz.

9. **Lareoko trikuharria.** Ezkerrean dugun trikuharria ikusita aurrera jarraituko dugu bidean.

10. **Lareo.** Urtegiaren paretaren ertz batean garelara, ezkerreara eta behera egiten duen bidea jarraituko dugu Lizarrustirako seinaleari kasu eginez.

11. **Malkorburuko leizea.** Urtegitik behera gatzela langa igaro eta metro gutxira, ezkerrean izango dugu urtegitiko ur-soberakinak ezkututzen diren leizea. Bideak ordea aurrera jarraitzen du.

12. **Zubia.** Maizegi erreka igaroko dugu bidean aurrera eginez.

13. **Akerretako tunela.** Gizakiak harrian landutako tunel hau igaroko dugu bidean.

14. **Akerretako iturria.** Ezkerrean dugun iturria ezarriak freskatu ondoren aurrera jarraituko dugu.

15. **Sukaldezarreko koba.** Bidearen ezkerrean geldituko da harkaitzean gora kobatxo hau, nahi duena hurbil daitekeelarik.

16. **Egur-hesia.** Egurrezko paso hau igaro ondoren eskuinera eginez amaiera-puntura helduko gara.

=1. **Amaiera-puntua.** Berriro ere Lizarrusti Parketxeko aparkalekuan gara bueltan, ibilbideari amaiera emanez.

## GUNE INTERESGARRIAK



LAREOKO URTEGIA

Lareoko urtegia Malkorburu, Sarastarri, Akaitz eta Alleko mendiek inguratutako parajea, 1989an eraiki zen Agauntza ibaiaren emari ekologikoa eta ataudarren ur hornidura bermatzeko, 20 ha-ko azalera eta 2,35 hm<sup>3</sup>-ko bolumena dituelarik.



AKERRETAKO TUNELA

1916an Arana deituradun batek eginiko tunela. Harkaitzean landuriko pasadizo hau garai batean txondor-ikatzeta eta harria menditik ateratzeko eta beranduxeago Quifosa enpresan alkohola egiteko pago-egurra garraiatzeko ere erabili zen.



LIZARRUSTI PARKETXEA

1887an eraiki zen mikeleteek Gipuzkoa eta Nafarroa arteko joan-etorria zain zezaten, eta horregatik Mikelete Etxe bezala ere ezagutzen da. Egun, puntu hau Aralar Parke Naturalerako sarrera nagusietako bat bihurtu denez, bertan kokatzen da Aralarko interpretazio zentroa, aterpetxe eta taberna funtzioa ere betez (egun, berritze-lanak direla eta itxita; bitartean informazio-bulegoa San Gregorio auzoko elkargunean).